

## *Etxean kontu-kantari 2*

### *Maro Marotxu*

Zubizarreta, I. (2007). *Bularretik Mintzora*. Galtzagorri elkartea.

Kantu polita dugu honako hau. Haurra txikia bada, eskua eragin haurraren aurpegi aldean begira dezan. Handiago bada, gurekin batera, kankak esandakoan eskuari eragin diezaion gonbida dezakegu.

Maro Marotxu,  
eragiozu eskutxoari  
behin batari eta  
behin besteari...

### *Abereak eta landareak hiztun*

Zubizarreta, I. (2007). *Bularretik Mintzora*. Galtzagorri elkartea.

Ba al dakizue noiztik kontatzen diren ipuinak? Jakin nahi baduzue irakurri aipatutako ipuina...

### *Ala kinkirrinera*

Zubizarreta, I. (2010). *Sasi guztien gainetik*. Galtzagorri elkartea.

Familia osoa borobilean jarri eta jolas ederra dugu ondorengoa. Nork bere izena entzutean, jira egingo du atzera, horrela denena esan arte.

Ala kinkirrinera,  
ala samurrera.  
Maria plaza berriko  
jira beste aldera.

### *Bat eta bi*

Zubizarreta, I. (2010). *Sasi guztien gainetik*. Galtzagorri Elkartea.

Segidan, soka saltoan aritzeko proposamena egiten dizuegu.

Bat eta bi,  
Sorgina etorri  
Soka kendu  
Zulora eraman.  
Afaldu gabe  
Ohera joan.

## Loa, loa xunxurunbere

Zubizarreta, I. (2007). *Bularretik Mintzora*. Galtzagorri elkarteak.

Ohean gaudela goxo-goxo kantatuz bukatu dezakegu eguna, modu eder batean.

Loa, loa xunxurunbere.  
Loa, loa, masusta.  
Aita gurea Vitorian dago,  
Ama mandoan hartuta  
Loo, loo, loo...

Lolito-lolito, lo-lo.  
Zuk orain eta nik gero.  
biok batera lo egiteko,  
etxean inor ez dago.  
Loo, loo, loo...

Tirikitrauki, trauki,  
mailuaren hotsa.  
Hamalau hargin baino  
hoba dot arotza.  
Loo, loo, loo...

Lua, lua, lua,  
ez "eidazu" lo basuen.  
Azeri batek jan ez zagiazan  
bildotsa zarelakuen.  
Loo, loo, loo...